

## Antxiñako fotografixak



# Joxe Arriaran eta Zubillagako pelotalekua

Orain dala hillabete bat fan xaku Mondraguek emun dauen pelotaririk haundixenetako bat: **Joxe Arriaran Aranburu, Arriaran II.a**. Eta makiñatxo bat pelotari on egon da Arrasaten, bai horixe. Kirol ibilbide luzia eta aberatsa euki eben Joxek: banakako txapeldun izan zan 1955ian nahiz 1956xan, eta biñakakua 1961ian Pako anaiarekin batera. Pelotari saiatua, fiña eta dotoria izan zan beti, frontoietakoa benetakoa zalduna, hogeita bost urtian profesionaletan jardunaz.

Oñatin be sarritan jokatu eben Arriaran II.ak. Plazako frontoi zaharrian, Korpustietan edota San Migeletan antolaketan ziran partidu entzutetsuetan. **Arantzazuko kolejixoko pelotaleku barrixak** inaugurau ziranian be, 1955eko urrixaren Sian, han izan zan Joxe. Bi partidu jokatu ziran: lehenenguan **Txikuri** eta **Mondragones II.a**, **García Ariño I.a** eta **Etxeberria II.a**ren kontra; bigarrenian, barriz, **Arrasateko ezkerria (Zurdo)** famaua) eta **Etxabe X.a Arriaran anaien** aurka. Orduko argazkixak Goiko Bentako sarreran ikusi zeikiei.

Baiña guk ondo goguan dakoguna **Zubillagako pelotalekuaren inauguraziño egunekua** da. San Pedro bixamonian, 1960ko bagillaren 30ian izan zan, eta lau mondraguarrek jardun euen partidu nagusixan: **Arriaran II.ak** eta **Juan Mari Azkaratek** alde batetik, eta **Jaime Bengoak** eta **Pedro Ugartek** bestetik. Orduantxe jarri zan Joxe Arriaranen erretratu ezkerreko paretiaren atzekoaldian, **Simon Arrieta** pinttore bergararrak egindako marrazkixa. Argazki zaharrenian datoz lau pelotarixok: ezkerretik eskumara, Ugarte, Bengoa, Arriaran eta Azkarate. Pedro eta Juan Mari oñatiarrekin eta Oñatira ezkondu ziran, gaiñera.

Handik urte askotara **Zubillagako pelotaleku hori estali** egin zan. Eta orduan be omenalditxua egin xakon Arriaran II.ari. Hori 1999ko zemendixaren 28xan izan zan. Beste fotografixan agiri da orduko irudixa: **Joxe Arriaran erdixan** dago, bere eskuman **Anjel Iturbe** zubillagarra, garai haretako Oñatiko alkatia dakola, eta ezkerrian **Iñaxio Iñurritegi** Zubillagako auzo-alkatia. Arrietaren marrazkixa hondatuta eguelako, Joxeren argazki barri bat ifiñi zan ezkerreko horman.

J. E.

Argazkixak Aurita Perosterenak eta Iñigo Arregik eskuratu doskue. Argibidiak, berriz, Jabier Ugarte, Joxe Ramon Azkoitia, Izar Salaberri eta Nerea Artolari zor dostegu. Milla esker danoiri!

**Oharra:** Orain hurrengo fotografixa zaharreko beste hiru izen jakin dittugu Nikolas Ugarteren bittartez: Joxe Mari Ugarte *Kirru* ezkerretan gabanarekin dagueña, Karmelo Astigarraga bizikleta gaiñian, eta Santos Irizar estankokua eskumako ertzian. Eskerrik asko informaziñuarengatik.